



## PROGRAMAZIO LABURTUA

|                        |   |  |  |          |  |  |                  |           |
|------------------------|---|--|--|----------|--|--|------------------|-----------|
| IKASTETXEAREN<br>IZENA | BENTADES IKASTETXEA                                     |  |  |          |  |  | Kodea:<br>014777 |           |
| ARLOA / IRAKASGAIA     | GORPUTZ HEZKUNTZA                                       |  |  |          |  |  | DATA             | 2018-2019 |
| MAILA                  |   |  |  | 2.ZIKLOA |  |  |                  |           |
| 1                      | ARLOAREN GUTXIENEN HELBURUAK GAITASUN MODUAN ADIERAZITA |  |  |          |  |  |                  |           |

- Mugitzea eta salto egitea, eta bi trebetasun horiek era koordinatuan eta orekatuan konbinatuz, gorputz mugimenduak jardueren baldintzetan gertatzen diren hainbat aldaketaren arabera egokitzeko.
- Pilotak edo beste tresna higikor batzuk jaurti, pasa eta jaso, horien kontrola galdu gabe, mugimenduak ibilbideen arabera egokitzeko.
- Luzera-ardatzean eta zeharkako ardatzean bira egin; hala eskatzen duten gorputz-jardueretan, segmentuposizioak dibertsifikatuz eta mugimen erantzunak hobetzeko.
- Era koordinatuan eta lankidetzan jardutea, helburuak lortuz, taldekako jolas batean aurkari bati edo batzuei kontra egiteko.
- Jolasetan eta kirol-jardueretan parte hartu, arauak ezagutzuz, gainerako pertsonak onartzeko.
- Erritmo-egitura errazak proposatu gorputzarekin edo instrumentuekin erreproduzitzeko.
- Gorputzaren adierazpen-baliabideak erabiltzea eta taldean inplikatzeko, ideiak eta sentimenduak komunikatuz, pertsonaiak eta istorioak (benetakoak eta asmatutakoak) antzetzeko.
- Jarduera fisikoak osasunerako duen balioa kontuan hartu, jokabide aktiboa izanez, gorputza zaintzeari eta jarrera- nahiz elikadura-ohiturak mantentzeari dagokienez, interesa agertzeko.

|   |  |  |  |  |   |  |
|---|--|--|--|--|---|--|
| 2 | EDUKIEN DENBORALIZAZIOA  |  |  |  |   |  |
|   | 1. ebaluazioa  |  | 2. ebaluazioa  |  | 3. ebaluazioa   |  |
|   | <ul style="list-style-type: none"> <li>HAUTEMATE- ETA MUGIMEN-GAITASUNAK.</li> <li>MUGIMEN-TREBETASUNAK</li> <li>GORPUTZ ADIERAZPENA ETA KOMUNIKAZIOA</li> <li>JARDUERA FISIKOA ETA OSASUNA</li> </ul> |  | <ul style="list-style-type: none"> <li>HAUTEMATE- ETA MUGIMENGAITASUNAK.</li> <li>.MUGIMEN-TREBETASUNAK</li> <li>GORPUTZ ADIERAZPENA ETA KOMUNIKAZIOA</li> <li>JARDUERA FISIKOA ETA OSASUNA</li> <li>UD5. JOLASAK</li> </ul> |  | <ul style="list-style-type: none"> <li>HAUTEMATE- ETA MUGIMEN GAITASUNAK.</li> <li>MUGIMEN TREBETASUNAK</li> <li>GORPUTZ ADIERAZPENAETA KOMUNIKAZIOA</li> <li>JARDUERA FISIKOA ETA</li> </ul> |  |



- JOLASAK

- OSASUNA
- JOLASAK

3

## EBALUAZIO- IRIZPIDEAK ETA KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK

**EBALUAZIO IRIZPIDEAK**

- Hainbat eratako lekualdaketak eta saltoak egiteko ahalmena nabarmen hobetzea (norabide-aldaketak, noranzko-aldaketak...).
- Gorputz-mugimenduak espazio- eta denbora-ezaugarrien arabera egokitzea, hau da: iraupena, erritmoa, mugimendu-ordena, norabideak...
- Jolasten ari dela, hau da, objektuak pasatzean, jaurtitzean eta gidatzean ibilbideak egokitzea.
- Gorputza egoki bideratzea harrera-egiteetan eta -geldiketetan.
- Hainbat luzera-ardatzetan eta zeharkako ardatzetan birak arriskurik gabe egitea.
- Espazioa behar bezala okupatuta, ikaskideen jokia erraztea.
- Mugimen-arazoak estrategia errazak ezagutzuz eta erabiliz konpontzea.
- Jolasean guztiz inplikatzeko.
- Proposatutako jardueretan, norbanakoaren ezaugarri fisikoetan dauden aldeak onartzea.
- Joko-arauak irakurketaren bidez ulertzea.
- EB5.11 Jolasa gozamenerako, harremanak egiteko eta aisialdi-denbora pasatzeko baliabide gisa hartzea.
- Euskal kulturako eta beste kultura batzuetako dantza errazak egitea.
- Instrumentuak erabiliz hainbat erritmo asmatzea, eta horiek gorputzaren mugimenduaz erreproduzitzea (lekualdaketak eginez, saltoka, txaloka, kolpeka, kulunka, biraka).
- Mugimenduan naturaltasuna eta sormena garatzea.
- Ikaskideek gorputzaren eta mugimenduen bidez adierazitako mezuak ahoz interpretatzea.
- Ikaskideekin lankidetzan jardutea, eta emozioak erregulatzea.
- Tokiko euskal tradizio ludikoetan (dantzak, inauteriak, kirolak) parte hartzea eta haietan parte hartzeko zer ezaugarri eduki behar diren jakitea.
- Jarduera fisikoa egitean osasun- eta higiene-ohiturak zaintzea.
- Jarduera fisikoa egiteak izan ditzakeen arriskuak ezagutzea.

**KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK**

Ebaluatzerako orduan unitate didaktiko bakoitzean berezkoak eta orokorrak diren ebaluazio irizpideak aztertuko ditugu. Irakaslearen behaketa



koaderno erabiliko dugu.

**BEREZKOAK %60:** unitate bakoitzean lantzen diren eduki espezifikoak.

**OROKORRAK %40:** unitate guztietan lantzen diren edukiak (jarrera, parte hartzea, arauak errespetatzea, osasun ohiturak,...)

Ebaluzioa eta eguneroko lanaren behaketarako irakaslearen koaderno erabiliko da.